

Sarrera: Zuzenbide Penaleko Ikasgaiak honen egitura

Zuzenbide Penaleko Ikasgaiak honek bai Zati orokorreko bai Zati bereziko *eskema praktikoak*, *kasu praktikoak*, *eskema teorikoak* eta *oinarrizko bibliografia* biltzen ditu eta bukaeran lan osoan zehar erabilitako terminologiaren bilketa (*hiztegia*) dakartza. Egiturak berak hasiera batetik argi uzten du lanak alderdi praktikoei lehentasuna ematen diela, alderdi teorikoa ere gutxietsi barik. Horregatik bai Zati orokorraren hasieran bai Zati bereziarenean lehenik eta behin **Eskema praktikoak** azaltzen dira. Hauen bitartez zuzenbide penaleko kasu praktikoetan azaltzen diren arazorik funtsezkoentzako irtenbide-ereduak eskaintzen dira era sistematikoan. Zati orokorrari dagokionez delituaren teoriaren inguruko eskemak dira gehienbat, alegia, edozein delituren atzean egon beharreko ezaugarriak modu sistematikoan lantzen dituztenak. Zati bereziaren kasuan, ordea, *kalifikazio-idazkia* erdigunean dugu, hain zuzen ere jarduera deliktiboen aurreko tipifikazioa, partaidetza gradua, zigorra eta abar ezartzeari begira.

Eskema praktikoak landu ondoren, zenbait **kasu praktiko**, gehienetan gaztelaniazko epaietatik ateratakoak, zenbaitetan dotrina zientifikoak sorturikoak, sailkaturik ematen dira. Gaien arabera sailkapenak berak nabarmentzen du kasu praktiko bakoitzean zein den landu beharreko alderdi edo arazo juridiko-penalik garrantzitsua. Horrek ez dio, ordea, kalterik egiten, kasu gehienetan sailkatutako gaiez kanpoko bestelako arazoak ere biltzeari, zuzenbide penaleko kategorien arteko lotura estuaren adierazgarri argia dena. Aurrerago itzultzen diren kasuen zailtasunari dagokionez, bai Zati orokorrekoak, bai Zati berezikoak bereziki konplexuak dira, erakunde juridikoen mugetan hoberen trebatzen delako norbanakoak bereganatutako jakintza teorikoa.

Ulertzekoa den bezala, bai eskema praktikoek bai aukeratutako kasu praktikoek ez dute ahitzen zuzenbide penaleko arazoan aniztasuna. Horregatik halabeharrez Europako zuzenbide fakultatean ohikoak diren egitarauen arabera aukeraketa egin da, beti ere Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatean jarraitzen den ildotik (baita etorkizunean ikustekoa denetik ere, *plan berria* heldu baita).

Alderdi praktikoen ondotik **Eskema teorikoak** deituriko atala dator. Horren helburua zuzenbide penalaren inguruko jakintza teorikoa landu edota sakondu nahi duen orori euskarazko egituraketa sistematikoa eskura jartzea besterik ez da. Eskemak zuzenbide fakultatean ematen diren klaseen azalpenarekin batera erabiltzeko eginak daude eta horrexegatik horien tankera estilistiko laburtua ulertu beharra dago, ideien gida, ez horien erredakzio bukatua, eskaini nahi izan den neurrian.

Bukatzeko **Oinarrizko bibliografia** —orokorra zein alderdi praktikoak bereziki lantzekoa— eskaintzen da, aurreko atalekin gertatzen zen bezalaxe Zati orokorrekoa eta Zati berezikoak bereizirik.

Liburu honek azkenean **Hiztegia** deitutakoa dakar: hitzaurrean genioen moduan Zigor Kodearen bertsio elebidunean hasitako lanaren jarraipena izatea nahi dugu eta horrexegatik han emandako sarrerak, salbuespenak salbuespen, onartzen eta erabiltzen dira. Horren aldean berezitasun hau dago: Zigor Kodearen testuan azaltzen ez diren baina esparru juridikoan egunero erabiltzen diren esamolde eta hitz garrantzitsu batzuk ematen direla. Euskarazko diskurtso juridiko-penala osatzera datorren hau, ordea, tentuz hartu beharra dago, ez behin betikoak baizik hausnarketarako proposamenak besterik ez diren neurrian, erabili izanaren berme argitara ematen direnak baina iritzi oinarrituago baten aurrean aldatu, moldatu edota ezerezteko modukoak izan daitezkeenak.